

# BERRIGARA

12. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara

1991, martxoak 8



**Martxoak 8 :**  
**Emakumearen**  
**Eguna**




**T. Monzon:**  
**Joanak dira**  
**hamar urte**



**JARDUN:**  
**Bilera Orokorra**  
**datorren ostegunean**


BANCO

 **Guipuzcoano**

LOIOLA'91 BANKU OFIZIALA







Barrenkale , 3 • BERGARA • telf.: 943-765919



**ARGAZKI**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66

*Hau amama dalakoan?*

**GALDE DEBALDEN**

**pentsatu beharra dago.**

**Aurki hemen bertan.**

 **HERRAN  
ETXEA**

Elektragailuak  
T.B. - Bideoak - HI FI  
Sukaldeko Altzariak

Matxiategi 3 Tfnoa: 76 12 22 BERGARA

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 57



# BERRIGARA

## Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa: 760397

Laguntzailea: Bergarako Udala

## Zuzendaria:

Miguel Angel Elkorobereibar

## Erredakzioa:

Jon Andueza, Eneko Azkarate

## Maketazioa:

Edume Arenaza, Jon Andueza

## Publizitate eta harpidetza:

Ignazio Irigoien, Edume Arenaza

Tfnoa: 760397

## Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan

Martin Elxepuru

## Kolaboratzaileak:

J. Oregi, A.

Uzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,

Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel

Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel

Elkorobereibar, Josune Iñarra eta

Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga

eta Ainhoa Bikutia

## Argazki laborategia:

I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.

Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.

Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.

Jauregi eta Kifitu

## Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

## Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Ofiati)

## Banaketa arduraduna:

Txantxangorri Taldea

## Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



## 8 OSTIRALA

• **Zinea:** "Muñeco Diabólico 2", 10.30etan.

• **Erakusketa:** Kultur Etxean martxoaren 7tik 17ra Jose.R. Gantxegiren pintura, eta Xabier de Zeroren eskultura erakusketa.

• **Kontzertua:**

- Aretxabaletako Gaztetxean E. H. Sukarra eta Zakarrak taldeak.

• **Goardiako farmazia:**

Camacho, Bidekurutzetan.

## 9 LARUNBATA

• **Zinea:** 5etan eta 7.30etan "Muñeco diabólico 2"; eta 10.30etan "Menphis Belle".

• **Pilota partiduak:** Frontoian, 4.30etan hasita, honako neurketa hauek ikusteko aukera: Errasti / Irazola (2. mailako banakako txapelketa); Salaberria-Tolosa/Unanue-Zezeaga; eta emana naldiarekin bukatzeko, Ansoa-Andueza VI / Satrustegi-Mendia

• **Futbitoa:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako parti-

duak.

• **Antzerkia:** Mariaren Lagundia aretoan, *Traspasos* Taldeak *Iendo* obra eskainiko du. 10.30etan.

• **Telesforo Monzoni omenaldia:** 10.30etan, herriko frontoian, Pantxoa eta Peio, Sarasua eta Amuriza bertsolariak, eta tarteka trikitilariak festa alaitzen.

• **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

## 10 IGANDEA

• **Zinea:** "Menphis Belle", 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

• **Futbitoa:** Kiroldegian, goizeko 9etan hasita, kuadrila arteko txapelketako partiduak.

• **Futbola:** Agorrosineko zelaian, 4.30etan hasita, preferente mailako Bergara eta Anaitasuna talden arteko norgehiagoka.

•

• **Dantzaldia:** 6.30etan, plazan, korkoil taldearekin dantzaldia.

• **Goardiako farmazia:** Puy, Barrenkalen.

## 10 ASTELEHENA

• **Zinea:** Astelehenean ez da emanaldirik egongo.

• **Goardiako farmazia:** Guallar, San Antonion.

## 12 ASTEARTEA

• **Goardiako farmazia:** Estella, Matxiategin.

## 13 ASTEAZKENA

• **Lurraldea eguna:** Gasteizen hasiko den *Lurraldea bira* asteazkenean helduko da Bergarara. Hori dela eta, *Lurraldea eguna* ospatuko dute. Euren proiektuaren maketaren erakusketa (herriko plazan), eta UNEDen hitzaldi eta bideo emanaldia egingo dira.

• **Goardiako farmazia:** Mozos, San pedron.

## 14 OSTEAGUNA

• **Goardiako farmazia:** Camacho, Bidekurutzetan.

## Aukeran...

**Telesforo Monzoni omenaldia:**

Larunbatean, gaueko 10.30etan, jaialdia herriko frontoian. Pantxoa eta Peio kantariak, Sarasua eta Amuriza bertsolariak, eta trikitilariak arituko dira.

# ederJu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

# MAHER BILTEGIAK L.E. OIHAL ETXEA

Bidekurutzeta, 29 Tfnoa: 76 22 90  
BERGARA 76 26 75



# IRAU RGI

. Ateak . Leihoak  
. Zoruak

Kruz Gallastegi 7 Tfnoa: 76 03 96  
BERGARA

## HURBIL

**Akupuntura eta  
masajista**

T. Aranzadi 2, Tfnoa: 76 30 08 BERGARA

## Mujika

### Jantxidenda

BARRENKALE, 1 BERGARA  
Tfnoa: 76 29 91



## LIZAR

### Altzariak

Dr. Fleming 5. Tfnoa: 76 16 53  
BERGARA

### Zuhaitz astea:



Aspaldiko urteotan, garai honetara iristen garenean, zuhaitz eguna bultzatzen dute instituzioek. Eskertzekoa da benetan gure Udalak oraingoan astebete osoa dedikatzea zuhaitzen landaketarako. Baina urte osoan Erakundeek bultzatu duten basogintzari buruzko politika zein izan den ikusten badugu, kontraesan bat aurkitzen dugu, guzti hau faltsukeri huts bat ez ote den.

Politika horren ondorioz (Inongo plangintzarik jarraitu gabe), gauza hauek azter ditzakegu: bertako zuhaitzak bota eta pinua sartzen dela edonon eta edonola; behar diren baino pista gehiago egiten direla, inongo kontrolik gabe; eta azken finean gure lurraren kaltea besterik ez dakar: uholdeak, gure erreken sikatztea, prozesionaria, suteak, desertizazioa eta beste kalte asko.

Urte beteko epean hondatzen den guztia ezin da egun baten edo aste betean errekuperatu, zuhaitzak eta orokorrean landareria guztia zaindu eta errespetatu behar dugu. Kontzientzia hartu behar dugu, gure baso, ohian eta mendien etorkizuna gure eskuetan dagoela. Beraianenganako lotura eta behar haundia daukagu. Beraz, gure etorkizunagatik... gure lurra defenda dezagun!!

P.D: parte hartu zuhaitzen landaketan, oso didaktikoa bait da.

**Bergarako Eguzki**

### JARDUNeko hitzaldi antolatzaileei kritika:

Joan den asteartean, otsailak 26 antolatu zenuten hitzaldi bat *Golkoko Gerrari* buruz; han entzule gisa egon nintzenez gero, ikusi nuena zera izan zen, hizlari biak ikuspegi eta eritzi berdinekoak zirela.

Nere eskaera izango litzateke, hurrengo hitzaldietara ikuspegi ezberdinetako jendea ekartzea, nolabait *salisa* piska bat sortzeko. Besterik gabe, jarraitu antolatzen hitzaldiak euskaraz. Agur bero bat.

**Arantza Egibar**


### San Antonioko semaforoa (2):

Atal honetan bertan irakurri nuen joan den asteko BERRIGARAN I. Kortabarriak bidekurutze honetako semaforoaz idatzi zuen eskutitza, eta Antzuola aldetik Bergarara gauez joan naizen bakoitzean gauza bera pentsatu izan dut; alegia, hor semaforoa dagoela jakin ezean, oso zaila dela, gain gainean egon arte, berde ala gorri dagoen ikustea. Gauez, bidekurutze bera argizatzen duten farolek oztopatzen dute semaforoa behar bezala ikustea; eta egunez berriz, sasarte batek ezkututzen du semaforoa dagoela adierazten duen trafiko seinale erdi eroria. Zerbait egin beharra dagoela argi dago nere ustez, San Antonioko bidekurutzea gauez egoten den bezain argi!

**Tere Beloki**

### Tiiira ba!

### Josu Okina





## ❑ Diapositiba lehiaketa

Pol-Pol mendizale taldeak diapositiba lehiaketa antolatu du. Lanak Kultur Etxeko liburutegian entregatu beharko dira apirilaren 9a baino lehen, eta Bergaran bizi den edonork har dezake parte. Gaia librea (nahiz eta Mendia Bizirik taldeak sari berezia emango dion natura hobeto isladatzen duen diapositibari).

## ❑ MAYC-eko langileen mobilizazioak

Aste osoan zehar, egunean bi orduko geldioneak egin dituzte MAYC-eko langileek, Zuzendaritzarekin paktua sinatzeko negoziazioak apurtu direlako. Gauzak aldatzen ez badira datorren asteazken eta ostegunerako greba deialdia luzatu dute enpresan.

## ❑ Obrak Novedades zinean

Datorren astean ekingo diete Novedades aretoa berritzeko lanei. 7 milioi pzta.ko gastuaz, butakak aldatu, moketa berria jarri eta margotze lanak egingo dituzte. Aste osoan zehar zinea itxita egongo bada ere, astebukararako bukatu nahiko lituzkete lanak.

## ❑ Haize zakarra egunotan

Egun hauetan haize zakarra izan dugu bisitari Bergaran, eta orohar Gipuzkoa guztian. 140 km orduko abiadura hartzerarekin iritsi omen zen. Bergaran, nahiz eta beste toki batzuetan kalteak gogorragoak izan, izei haundi bat eta *sekuoia* bat erdibitu zituen Usondo parkean.

## ❑ Kaleak garbi lehiaketarako lanak

Martxoaren 15a baino lehen Udaletxera craman.



## ✓ Laguntzak gutxituentzat

Bergarako Udalak, herriko gutxituei euren etxe ondoan ibilgailuentzako aparkalekuak izateko aukera emango die. Horretarako, hiru baldintza bete beharko dira: alde batetik, garraio publikoak erabiltzeko mugikortasun zailtasunak eduki; bigarrenik, eskatutako aparkalekuan egongo den ibilgailua gutxituarena izan beharko da; eta hirugarren baldintza, azkenik, gutxituak garajea ez izatea edo bertara hurbiltzea ezinezkoa izatea.

Baldintza hauek betetzen dituen edonork Udaletxean aurkeztu beharko du eskaera, datu eta egiaztagiriekin batera.

Bestalde, herriko familia batzuek jasaten dituzten zailtasun ekonomikoak direla eta, Udalak herri-barruko garraioetarako diru laguntzak eskainiko ditu. Familia osatzen dutenen kopurua eta hauek eskuratzen duten diruaren arabera emango dira subentzioak.

## Txomin Artola etorri zela...

Txomin Artola euskal kantaria Mariaren Lagundiko aretoan izan genuen asteartean.

Emanaldia Gipuzkoako Diputazioak ikastetxeekin akordaturako egitasmoaren barruan burutu zen.

Hantxe izan genituen Mariaren Lagundiko REMeko ikasleak, eta baita Lanbide Heziketa Institutuko 3., 4. eta 5. mailakoak ere.

Musikaren munduarekin lotuta, aipa dezagun *Sisters of Mercy* taldeak igandean Txibiston emandako kontzertuan 900 lagun inguru bildu zela.



## UNED HIZKUNTZA ESKOLA INGLESEKO IKASTARO INTENTSIBOA

IRAUPENA: apirilaren 8tik ekainaren 21era  
Astelehenetik ostegunera 6.30etatik -9etara  
Informazioa eta izen ematea UNEDen. Tfnoa: 76 13 42

### HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57  
BERGARA





## ✓ Jardunen bilera ostegunean

Hamar bat hilabete pasatu dira Bergarako herriari euskara bultzatzeko helburua duen Jardun Elkartea sortzeko asmoa aurkeztu zitzaionetik. Harrezkero, asmo hura apurka-apurka errealitate bihurtu da, batez ere Elkartek dituen hirurehun bazkide inguruei esker. Arduradunen eritziz, ordea, lehenengo aurkezpena egin zenetik denbora asko joan da, eta bitarte horretan agian ez dute informazio gehiegirik eman. Gauzak horrela, eskasia horri aurre egiteko, eta hemendik aurrera jarraitu beharreko bidea markatzeko Jardunek datorren ostegunean, martxoak 14, Batzar Orokorra egitea erabaki du.

Batzar Orokor hori UNEDeko aretoan izango da arratsaldeko 7.30etan, eta Elkarteko bazkide guztiak daude bertara joateko konbidatuta.

Besteak beste Jardunen estatutuak, 1990eko memoriaren aurkezpena, diru-kontuen egoera, eta 1991rako asmoak azalduko dituzte. Era berean Zuzendaritza Batzordea aukeratuko da, eta lantaldeak osatuko dira.

Batzarraren ondoren, luntxa emango zaie hurbiltzen diren guztiei.

## □ Amaia Zabaleta

Antzuolako atletak brontzezko domina eskuratu zuen Zaragozan jokatutako Espainiako Txapelketan. Kadete mailako luzera jauzian hartu zuen parte, eta 5 metro eta 16 zentimetroko marka lortu.

Amaia saria jaso zuen gipuzkoar bakarra izan zen.

## □ Ski irteerak

Pol-Pol mendizale taldeak bi irteera antolatu ditu martxoan eskiatzera joateko. Lehenengoa San Jose zubian, eta bigarrena Aste Santuan. Informazioa nahi duenak, deitu 76 48 51 tfno.ra.

## □ Antzerkia

Larunbatean, Mariaren Lagundiko aretoan, *Traspasos* antzerki taldeak *Iendo* obra eskainiko du, gaueko 10.30etan.

## □ Korrika

Larunbatean, *Korrika*-ren aldeko diru-bilketa egingo da Bergarako kale eta dendatan.

## □ Iñigo Gallastegi

Hernanin jokatutako Euskal Herriko Neguko Igeri Txapelketan, 100 m atzerakako proban urrezko domina irabazi zuen.

## □ Kilometroak 91

Bergaran egingo den *Kilometroak 91*k badu da-goeneke bere logotipoa.

136 lan aurkeztu ziren lehiaketan, eta epaimahai-koek buru gorria duen K urdin bat aukeratu dute. Irabazlearen izena datorren astean ezagutuko da.

Bestalde, Aranzadi ikastolako hiru irakaslek ospakizuneko abesti ofiziala izango dena prestatzen dihardute.

## □ Eskalada

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, apirilaren 8tik 20ra eskalada ikastaroa burutuko da Labegaraie-tako rokodromoan (mendian ere saio bat egingo).

Prezioa, 1.000 pzta. bazkideentzat, eta 2.000 gainontzekoentzat. Interesatuak jo Udaleko Kirol Zerbitzura.

*Nahikari*

Mahasterreka. 20  
Teléfono, 76 57 71  
20570 BURGARA

**Beheko  
Taberna**

**Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak**

**ANGIOZAR** Tfnoa: 76 55 74

**AE ELKORO  
ANTENAK**

**. TB Satelite bidez  
. Telebanaketa**

**ARRASATE**

Tfnoa: 79 18 86



# Telesforo Monzon

## Joanak dira hamar urte

**Martxoaren 9an hamar urte betetzendira Olaso Torreko semea hiri zela Donibanen.**

**Telesforo Monzonen figura politikoari buruz lan sakonak argitaratu dira. Agian horregatik, gu bergarar ospetsu honen beste ezaugarri eta bitxikeria batzuen bila abiatu ginen.**

Telesforo Monzon Olaso Torrean jaio zen 1904an. Zuzenbide ikasketak egin zituen Salamancan. 1931tik aurrera buru-belarri sartu zen politika munduan.

1937an, Gerra Zibilaren ondorioz Iparraldera alde egin zuen. Gero, II. Gerra Mundialean alemanak Frantzia sartu zirenean, Marseillatik Casablancara, handik Dakar-era, eta Dakar-etik Mexikora jo zuen.

1946an itzuli zen Donibane Lohitzunera, bertan eman zituelarik urte mordoska. Franco hil eta gero, Bergara eta Donibane artean banatu zituen bere bizitzaren azken urteak.

### Zenbait bitxikeria

Bergaran jaioa, gerora

idazle eta batez ere hizlari aparta izan zenak euskara erdi ahaztua eduki zuen gaztetan. Hogeitabost urte inguru zituenean, Tolosako Urkizu auzoko baserri batetara joan zen Aitorren Hizkuntza Zaharra berreskuratzera.


Gero, 1945ean, Mexican zegoela, Gerra Zibilaren ostean euskaraz idatzitako lehenengo liburua argitaratu zuen, *Urrundik*.

Gauza kurioso bat, Donibanen bizi zela, Telesforok bi neskame euskaldun zituen etxean. Haietxei irakurtzen omen zizkien bere idatziak. Estima haundian omen zituen, gainera, eta euren onepena jaso ondoren, Telesforok orduan aurrera.

Mexicon zegoela, etxeak dekoratzen aurkitu zuen bere ogibidea. Eta Iparraldeko Askain herriaren inguruan zeukan lur sailean ere, urteak eman zituen franbuesak landatzen gero hortik zehar saltzeko.

Hantxe ibiltzen zen patata sartzen ere, eta lehenengo aldiz uzta batu zuenean, bere lagun bakoitzari kilo bana bialdu omen zien zelofanean bildu eta lazo gorri batekin apainduta.

Benetan maite zuen Telesforok Askain inguruko bere txokoa, eta hantxe praktikatzen zuen bere zaleta-



sunik amorratuena: igandero joan ohi zen bertara zaldiz ibiltzera, eta han agertzen zen Askainen, goizeko mezetan, zaldun jantzita.

### Bere bihotzeko Bergara

Telesforo ezagutu zutenen hitzetan, pertsona sentibera zen oso.

Mitinetan hizlari aparta

izateaz gain, lagun artean zegoenean ere kontu kontalari fina omen zen. Hura berbetan hasten zenean ingurukoak beti adi.

Idealista hutsa, ikaragarri maite zuen Bergara. Haren-tzat gure herriak ez omen zuen akatsik. Dena den, guk baino hobeto beronek adierazi zuen sentimentu hori hurrengo poema honetan:

### Bergara (Urrundik liburuan)

Bergara'n yaioa naiz; antxe nai nuke il,  
zar egin arte bertan bizi izan-da gero.  
Bergara'tik urtenda pozik gabe nabil,  
iñun ene biotzak artu ezik bero.

(...) Bergara'ko kaleak, illun, estu, luze...  
Zubi zarrak errekan untza darakuste...  
Gauaz, eleiz-gain, ontzak arnas artzen dute,  
erria ixiltasunez dagoenean bete.

(...) Maite dugun andrea, lotan ba'da eder,  
ta semea pozkarri, seaskan dala ager,  
antzeko zoriona dakar biotzera,  
sorterria, baketsu, lotan ikustea!

**ZUNBELTZ**  
**Kafetegia**

Simon Arrieta Enparantza  
BERGARA

**GIARTZU**

( M. Isabel Hurtado )

**DERMOESTETIKA OSOKO ZENTROA**

Laser izpien bidezko errekupeazioa  
Errekuperagailu elektrikoa  
Korronte kapazitiboak  
Boni Laskurain 3, Etxabea Tfnoa: 76 35 71 BERGARA

Estetika Tratamenduak  
Larruazal garbiketak  
Kosmetika Espezializatua



# Alazne Irazabal

## Emakumearen alde egin beharreko lana

Alazne Irazabal. 25 urte. Azken sei hilabete hauetan, Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuaren Gizarte Laguntzailea dugu. Martxoaren 8an kaleratuko garela eta, Emakumearen Egunari bere txokoa gorde nahi izan diogu zenbaki honetan. Horretarako Alaznekin elkartu ginen, emakumearen gaurko problematika nolabait ezagutzen duen neska honen ikuspegia isladatzeko.

☐ Nola ikusten duzu zuk, orokorrean, emakumearen egoera 90. hamarkadaren hasiera honetan?

Ikusten da emakumearen egoera aurrera doala; baina era berean, ikusten da ere oraindik ezberdintasun haundiak daudela.

Non ikusten ditugun ezberdintasun horiek? Ba etxetik hasita, oraindik gaur lan guztiak andrak egiten dituzte; lan bila irtetzen direnean ere, lanpostuak betetzeko beti gizonetzkoak aukeratzen dituzte, eta kasualitatez emakumea hartzen badute, gizonari baino gutxiago ordaintzen diote lan berdina egiteagatik...

Guzti hori, eta tratu txar

rrak edo bortxaketak gogora ditzakegu.

Ez dakit. Gauza batzuk hobetu dira, baina lan haundia egin behar da oraindik emakumearen alde.

☐ Aurrerapausua izango litzateke, adibidez, etxe-ko lanak egiteagatik soldata bat ordaintzea?

Noski baietz, baina ez bakarrik emakumeari, gizonak ardura hori hartuz gero ere, neurri berdinean ordaindu beharko litzateke lana.

Dena den, hori utopia hutsa dugu. Ez dut uste Gobernuak, adibidez, aurrerapausu hori emateko prest daudenik, inun.

☐ Igertzen al da belau-

naldien artean diferentziarik, hau da, nabaritzen da gazteen integrazio maila hobetu egin denik azken urteetan?

Ikasketen munduan bai, hobetu egin da egoera. Gaur egun, unibertsitatera joaten den emakume kopurua asko igo da, eta hori gauza ona dela zalantzarik ez.

Halere, nik uste oraindik neskek nesken karrerak egiten dituztela, eta mutilek mutilenak. Eta aipatu bezala, ikasketak bukatu eta lan mundura irtetzen direnean, emakumeak kapazitate berdina edo hobeia izan arren enpresek gizona kontratatzen dute.

Nolabaiteko aurrerapena lortu dugu, ordea, eta nik uste hemendik urte batzuetara ja-

soko direla emaitzak.

☐ Zer neurri hartu beharko lirateke, zure ustez, benetako integrazioaren bidean?

Nik uste borrokarik haundiena Hezkuntzaren arloan egin behar dela. Bai gu-

**✓ Borroka nagusia Hezkuntzan dago; haurrak sexismorik gabe haztean.**

raso eta bai irakasleek berdintasunean hezi behar dituzte seme-alaba edota neska-mutikoak. Haurrak sexistatik kanpo bizitzen badira, beste mentalitate batekin,



**Pepelu**  
Ileapaindegia  
Zurradero 2, Behea  
Tfnoa: 76 43 07

**Kabia**  
Altzariak  
Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



duda barik irabazita legoke etorkizuneko integrazioaren apostua. Kontzientzia hori nahiko zabaldua dago gainera, eta OHOn, adibidez, ikusten da lan hori egiten ari direla.

❑ Ezal da sinbolikoegia, orduan, Emakumearen Eguna ospatzea hainbeste gauza egiteke dagoenean?

Tira, sinbolikoa bada. Urte guztiko lana da benetan merezi duena.

Baina bueno, ondo dago horrelako egun bat ospatzea ere.

### ✓ Kapazitate berdina edo hobeia izan arren, enpresek gizona kontratatzen dute

❑ Eta emakumea bera, arduratzen al da bere egoeraz? Saiatzen al da informazioa jaso, edo bere eskubideak defendatzen?

Argi dago gehien mugitu direnak, eta nolabaiteko kontzientzia piztu dutenak feministak izan direla. Euren esker lortu dugu lortu dugun apurra

Emakumea, bestela, orain arte beti etxean egon da, eta ez da gehiegi mugitu. Ikasten hasi denetik, edota lanari ekin dionetik beharbada...

❑ Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak, adibidez, funtzionatzen al du? Hurbiltzen al dira Bergarako neska edo andrak laguntza edo infor-



EmAkume baserriarren bilera, egoera hobetu nahi dutenaren adierazgarri.

mazio eske?

Normalean ez da jende asko etortzen. Banaka batzuk hasi dira ohitura hartzen, baina...

Ez dakit gaiak delikatuak direlako izango den, edo zerbitzuaren propaganda ez dugun behar bezala egin. Kontua da jende gutxi azaltzen dela.

❑ Hurbiltzen direnean, zeintzuk izaten dira emakume horiek tratatu nahi izaten dituzten gaiak?

Separazioak, edo tratatu txarrak, edo abortuari buruz jarduten dira gehienbat.

Orduan bi gauza gertatu daitezke: edo Bergaran benetan oso gutxitan ematen direla, edo bestela ez direla ausartzen etortzera.

❑ Bukatzeko, Alazne, Euskal Herriko gizar-teari

buruzko galdera bat. batzuk matxistatzat jotzen dute, eta hor daukagu gizon elkarteak exenplu moduan. Beste batzuk, ordea, etxe-koandarearen garrantzia haundia azpimarratzen dute. Zuk zer pentsatzen duzu?

Ados emakumeak etxean garrantzia haundia daukala, baina hori da bere rol bakarra. Andrak etxean, eta handik kanpo gizonak eramaten du pixu guztia. Hori nerretzat matxismoaren adierazgarri da.

Dena den, ez nuke jakingo esaten beste gizarte batzuekin konparatuta egoera hobe bizi dugun edo ez. Europako Estatu batzuetan garrantzia gehiago dute politika, edo enpresaren munduan, baina ez dakit...

## Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuari buruz

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzua Anbulategian aurkitu dezakezue zabalik, astelehen, asteazken eta ostiraletan, goizeko hamarretatik eguerdiko ordubata arte. Hiru alor lantzen dituzte bertan. Bata, emakumearen

promozioa.

Hitzaldi edota ikastaroak antolatzen dira. Lanaren munduarekin lotuta, ikasketak jarraitu ez dituztenentzat kursiloak ere antolatzen dira. Kanpaina ezberdinak ere luzatu izan dituzte, azkena osasunari buruzkoa.

Bigarrena, informazioa.

Noizbehinkako boletín bat kaleratzeaz gain, edozein gairi buruzko galderak erantzuten dira, nahi izanez gero abokatu batekin debaldeko kontsulta lortu daitekeelarik. Separazio, tratatu txar edo ama ezkongabeen kasuetan ere laguntza garrantzitsua jaso daiteke, arazo horiek bizi dituztenentzat etxebizitzak ere lortzen direlarik.

Azkenik, sexualitatea. Ikastetxeetan emandako ikastaroekin gauzatu dute.

# GISASOLA BURDINDEGIA

## " Erratzu "

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

# MAKAILO

Makailo  
kazuelak

## ETXEA

gertatzen ditugu

Ibargarai 15



## Aldoka Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI  
BERGARA

## ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri  
bildots, untxi  
baserriko oilaskoak

Matxiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA

## BRIKOLAIA AUTOMOZIOA

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA



## ETXE- -AUNDI

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

## Kiñu

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

Martxotik aurrera  
Barrenkale 35ean

Tfnoa: 76 58 05  
BERGARA

## Garbi al daude Bergarako kaleak ?



Josu Unamuno  
20 urte

Garbi badaude, baina garbiago egonez gero, hobeto. Guk geuk badugu zeresanik, gainera, ezin garelako beti zikinkeriak lurrera botatzen ibili.



Kati Rodriguez  
30 urte

Ondo daudela uste dut. Nahiko garbi.




M. Jesus Moñux  
46 urte

Nahiko garbi daude, nahiz eta garbiago egon daitezkeen. Beharbada zakarrontzi gehiago egon beharko lirateke.



Julian Portu  
63 urte.

Oso zikin daude. Hobeto partxeatu beharko lituzkete, itxura ona hola ematen bait da. Garbitzaileek egiten dute euren lana, baina egoera penagarrian egonda...



## POL-POL TABERNA

Tfoa: 76 48 51

## DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



• • • • •

1941eko otsailaren 15ean  
ezkondu ziren Angiozarko elizan  
**Modesto Bengoa eta Dolores  
Ojanguren.**

Duela hiru aste, beraz, urrezko  
eztaiak ospatu zituzten.

Nahiz eta berandu xamar,  
*Berrigarako* txoko honetara ekarri  
dugu bikotea zorionik beroenak  
opatu.



• • • • •

**Pozez zoratuta daude**  
Bergarako gaztetxoak,  
Matxiategin,  
**Kanposantuaren alboan**  
irristolan ibiltzeko jarri  
berri dieten Uarekin.  
Gure kaleetan santxeskian  
joatea debekatuta dagoela  
kontutan hartuz, ezin ukatu  
zaletu hauek zorionean  
daudela. Horren lekuko  
aldameneko argazkia, non  
mutiko mordoak ikusten  
dugun eraikuntza berrian.



• • • • •

Pasa den otsailaren 24an, Toshare  
ileapaindegiko Ignazio Morenok laugarren  
saria eskuratu zuen Donostian antolatutako  
**Gipuzkoako IV. Emakumezkoen**  
**Ileapainketa Txapelketan.**

Ignaziok 29 urte ditu, eta zortzi daramatza  
mundu honetan lanean.


Halako lehiaketa batetara aurkeztzen den  
lehenengo aldia da, eta ez du emaitza txarra  
jaso! Gipuzkoako Txapelketa hau *Costa Vasca*  
Hotelean egin zuten.

Ignaziok, gainera, bi bergararren laguntza jaso  
zuen, modelu moduan Nerea Blanco eta  
Arantzazu Unanue erabili bait zituen.



*Zertan  
dihardute  
ba?*

**JOSEBA ARIETALEANIZ**



Bergarako  
txirrindulariak erraz  
irabazi zuen igandean  
Donostian antolatutako  
I. Urgull Mountain Bike  
Txapelketan. Proba  
erlojuaren kontrako  
modalitatean jokatu zen,  
eta Josebak 31  
segunduko aldea atera  
zion bigarrenari.

**MIKEL LASKURAIN**



25 urteko bergararrak bi  
daramatza *Hika* antzerki  
taldean.

Duela gutxi itzuli badira  
Sevillatik, maiatzean  
Madrilera joango  
zaizkigu, antzoki batean  
*Chaplin tropela* ematera,  
eta kalean *Eta ohea* egin  
gabe obra antzeztera.

**TOKI-EDER**

**T a b e r n a**  
**Pintxoak eta**  
**eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA

**ANDVZV**

**Eraikuntza materialen  
biltegia**

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 0141  
Faxa: 76 0058 BERGARA

**ERREKi**

**ERRETEGIA**

Txitxarro eta saiheski jana  
astebukaeretan

Fraiskozuri Enparantza  
Tfnoa: 76 38 51 BERGARA



## Hau dok barreguria

Domund eguna aille-gau zan, txinuendako koletia eitteko eguna. Sermoiak akabau ezindda ibiltzen zan abadia igo zan Plazentziako elizako kulpittora.

- Domund eguna dala ta, parroko jaunak sermoi luze bat preparau eragin dost misioetarako dirua eskatuaz, baiña eztot hasiko sermoi hori, danok limosna on bat emoteko prest bazarete.

Sekula ez ei da batu egun hartan beste diru.

\*\*\*\*

- Hi, Jerolimo, hurrenguan andriakin laz-tanka habillenen bentana ondolik erretirau heike, auzuan barregarri izan nahi ezpadok behintzat, ze atzo afalostian andria eta bixok lotsatu be egin gifuztan zuei begira.

- Baiña norekin diharduk? Atzo etxetik kanpora ibili nintzuan eta.

\*\*\*\*

Domeka gau baten, baso erdi mordua jo ondoren, abixau da Xerapio Eibartik Plazentziaruntz. Bidian zigarrotxo bat erretzeko tentazifua etortzen jako. Etara zigarrua, pospolua ixotzen hasi... eta, haize madarikatua! Pospolua itxungi. Neri



etxostak pa adarrak joko. Hartzen dau buelta erdi, esku bixekin eitten dau haize-ekutua eta pizten dau azkenian. Gero, ke galantak etarraiaz, aurrera... eta halako baten, aibadios, berriro Eibarren. Derrepente Elkano eta Magallanes etorri jakozen burura, beti direziño berdiña eruanaz urtendako lekura bueltatzen dala... Baiña Xerapion hazaiña oinddio homologau barik dago.

Juan Martin Elexpuru

## Bergarari buruzko aipamenak (3): Gabonetako ikuskizuna

“Argien Mendea” deitu ohi zaio XVIII.ari, ilustrazioak Europako zenbait lurraldetan ideia berri eta aurrerazaleak hedatu zituelako edo. Arrazoiaren nagusitasuna eta zientziaren garrantzia aldarrikatzen dituen garai honek hurrengo mendean maila askotan etorriko diren aldakuntza askoren hazia ereiten duela esan daiteke. Gure arteko ilustratuenak “Azkoitiko Zalduntxoak” ezizenez bataiatutako jauntxoak izan genituen, “Baskongada” elkartearen eta Seminarioaren bitartez Bergarako herriaren izena Euskal Herritik kanpora zabaldu zutenak, alegia.

Azkoitiarrok honuntz heldu baino lehentxoago, ordea, Mondragoe aldetik azaldu zitzaigun berriz ere Bergarari buruzko aipamena. Non? Pedro Ignazio Barrutia (1759an †) Aramaioko seme eta Arrasateko eskribauak moldatu zuen *Acto para la Nochebuena* izeneko antzerkian. Erdi Aroan herri bien artean lehertutako haserreak ahaztuxeak ziren nonbait; ikus, bestela, nola aurkezten diguten Asmodeo eta Berbezu deabruak Gabonetako Ikuskizun honetako pertsonaiarik alaiena, hau da, Txarles “Barregarria”:


BELTRAN: *Nor da ura?*

ASMODOE: *Axe dok Txarles Tripazabal, Mendieta ongura.*

BERBEZU: *Artu daigun ingura,*

*Gaurko gauaz akorda didin 'para siempre' sekula.  
"Camaradas", engañadurik ezpadago begia,  
Au dok Mutilbaltz, Bergarako dantzari koplaria.  
Mundu guztia koplazteko etxaio falta grazia,  
Probadu begi nolakoa dan infernuko ogia.*

Jerardo Elortza




# BAZKIDEEN BATZAR OROKORRA

**Eguna: Martxoak 14, osteguna**

**Ordua: Arratsaldeko 7.30etan**

**Tokia: UNEDeko aretoan.**





Jokin Etxaniz

## Pelotaren munduan bidea eginez

□ Zer da pelotaren munduan aurkitu duzun gauzarik onena eta txarra?

Onena dudarik gabe pelotan jokatzea eta pelotarien artean sortzen diren harremanak, gure artean sortzen den giroa. Hori afizionatu mailan naba-riagoa da, profesionaletan lagunkidetasun hori pixkat galtzen bait da, ardura haundiagoa izatean, pelotari bakoitzak bere aldetik jotzen du. Pelotaren munduan, profesional mailan, gustatzen ez zaidana, frontoian jokatzen den dirua da. Askok, frontoira partidua ikustera eta jokoaz disfrutatzen baino, dirua jokatzen dijoaz, eta hauen erreakzioak ez ditut atsegin.

□ Beraz, afizionatu mailatik profesionaletarako aldea haundia da?

Bai, orain jokatzen irte-

terakoan, frontoia jendez beteta ikusten duzunean, ardura haundiagoa daukazu zure gainean; tartean dirua dagoenez, erresponsabilitatea haundiagoa da. Frontoira irtetzerakoan badakizu edozein huts egin ezker, jendea txistuka hasi daitekeela, eta horrek izugarri beldurtzen zaitu, oso gogorra da.

□ Profesionalentara pasa zineba laister betekoa da urtea, zein balantze egingo zenuke?

Hasieran uste baino hobeto nabil. Debutatu nuenean, urte batzuk justu xamar ibiltzea espero nuen, baino egia esan uste bainon politxoago nabil, azken aldi honetan asko hobetu dut nere jokoa, asko ikasi dut.

- Etorkizunari begira nora ailegatzea nahi duzu?

Horri erantzutea ez da batere erreza. Helburuak jartzea ez da komenigarria, nahiago dut eguneroko lana baloratzea eta etorri beharrekoa etorriko da. Dena den hemendik hiru edo lau urtetara, gorenko mailan ondo ibiltzea lortzen badut, Zezeagaren mailara heltzen banaiz, konforme.

□ Eta pelotaren etorkizuna nola ikusten duzu?

Batzuk diote txarrera egingo duela, beste batzuk berriaz, jokuari formula berriak erantsi behar zaizkiola... Argi dago, jende gaztea erakarri behar dela frontoietara, pelotari berriak falta dira. Azken garaian hiru irten gara, Ariznabarreta galdakaotarra, Loarte goizuetarra eta neu. Ez da asko. Jendeak, gainera, orain antzinako partidua ez direla ikusten esaten du. Gero eta jende gutxiago doa frontoietara, nahiz eta duela lau urtetik hona, frontoietan zaletu gehiago ikusten den.

□ Dirurik ematen al du?

Ni nagoen mailan, ez du bizitzeko lain ematen. Kontutan hartu behar da aitaren etxean bizi naizela. Nire gastuetarako etaratzen dut baina ez adibidez, etxe bat erosteko beste. Pelotatik bizi ahal izateko lehen mailan ondo ibili behar da, partidua asko jokatu behar dira, zenbat eta gehiago jokatu diru gehiago. Lesio bat edukiz gero, akabo.

□ Jarraitzaileak badaukazu?

Lagunak hemen jokatzen dudanean agertzen dira, bainan ez askotan, sarrerak oso garestiak bait dira. Pelotan ez dira peñak sortzen.

## Txikitatik pelota gozatzen

Jokin Etxaniz, Joxe Mari Zezeaga uberarrarekin batera, pelotaren gorenko mailan daukagun jokalaririk beragarriak dira. Datorren apirilean 21 urte egingo dituenean, 13 betekoa dira lehen aldiz frontoi batetan txuriz jantzi zenetik. Ordutik maila guztietatik pasa da, hainbat txapelketatan jaun eta jabe izan delarik; GRAUNeko txapelketak, Gipuzkoakoa, sarritan eskuratu ditu. Irabazi ez duen bakarra, Herri artekoa izan da.

Iazko uztailaren 28a ez du erraz ahaztuko Jokinek, pelotaren maila nagusiaren ateak ireki zion eguna izan bait zen, profesional mailan bere debuta egin zueneko. Berak uste baino hobeto ikusi du bere burua kantxan eta azken partiduetan joko polita erakutsi duela aitortzen du.

Pelotaren gorenko mailara heltzea norbait zor badio Jokinek, dudarik gabe bere aitaren izena aipatu beharko genuke, berak jarri bait zion lehen aldiz pelota bat eskuetan, hiru urte besterik ez zituenean. Aita pelotariak erakutsi dio Jokini dakien gehiena eta kritikarik gogorrena ere bera izan omen da.

**IGERILEKUKO**  
**TABERNA**  
EGUNEKO MENUA  
AURREZ ESKATUTAKO  
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



**Raizabal**  
**Gozotegia**

Arte kale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19





**San Juango eskolako ikasleak. 1943?**

**Goitik behera eta ezkerretik eskumara:**

**Lehen ilaran:** Luis M. Agirre (Narbaiza Bolu); Marzial Urzelai † (Narbaiza goikua); Rufina Igarza (Aixkar); Mari Karmen Arrizabalaga (Artiz); Mari Karmen Oregi † (Lizarralde); Kristina Olañeta † (Olañeta); Felisa Aranzabal (Agarre goikua); Hilaria Mendizabal (Amatiño); Isabel Mendizabal (Olaixa-aurrekua); Angeles Mendizabal (Olaixa-aurrekua) eta Ines Arregi (Kanpos).

**Bigarren ilaran:** Margarita Igarza (Albitxubaso); Julia Isasmendi (Izal); Maria Igarza (Albitxubaso); Seberiano Larrañaga (Izal-Etxeberri); Juan M. Beitia (Aiztizabal); Meltxora Lizarralde (Olaixa-erdikua); Bizenta Mendizabal (Amatiño); Leonardo Sarasola † (maisua); Eugenia Iturrino (Artiz); Inazia Iribekanpos (Paldaitxo); Alejandro Arruti (Etxebarritxa); Jesus Maiztegi (Muñondo); Juanito Beitia (Aiztizabal) eta Ramon Iribekanpos (Paldaitxo).

**Erdiko ilaran:** Jose Antonio Mendizabal (Amatiño); Jose Isasmendi (Izal); Jabier Zabaleta (Elortza-bolu); Asensio Arregi † (Kanpos); Jose Agirre (Lizarralde); Jesus Garitano (Aibar); Andres Gabilondo (Atxotegi); Jabier Larrañaga (Izal-Etxeberri) eta Benito Zenitagoia † (Agarretxo).

**Laugarren ilaran:** Markos Laskurain (Uralde); Maria Gloria Zenitagoia (Agarretxo); Eusebio Mendizabal (Amatiño); Roke Larrañaga (Izal-Etxeberri); Felix Arenaza † (Atxabaleta); Angelita Larrañaga (Aiztizabal); Karmen Agirre (Etxetxo); Pilar Agirre (Etxetxo); Isabel Oregi (Lizarralde) eta Juanita Beitia (Aiztizabal).

**Barreneko ilaran:** Fermin Arruti (Etxebarritxa); Felix Zabaleta † (Elortza-bolu); Jose Urcelai † (Narbaiza goikua); Jose Arenaza (Atxabaleta); Patrizio Agirre (Lizarralde); Luis M. Elkoroiribe (Barruti); Antonio Elgarresta (Errota-Erdi); Franzisko Elgarresta (Errota-erdi) eta Pedro Isasmendi (Izal).

**Estepan Plazaola**

Berriemaile: **Andoni Larrañaga**

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 50 77







## ETXEBIZITZA

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkitatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 8615-55, edo 862301.
- Pisua behar dut alkiterrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Lokal komertziala alkitatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu amueblatua behar du urte guztirako. Erdikaldean badago, hobe. Deitu gaez 760371 Tfno.ra.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi

dugu Bergaran.763431.

- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735

## LANA

- 16 urteko neska euskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

## DENETARIK

- Ihauteri asteartean Poligonoko Ikastola inguruan argazki kamara bat galdu nuen. Zerbait badakizu, deitu mesedez telefono honetara: 763270.

- Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493

- Ikasi josten zure astialdian. 762858

- 20,50 m2ko garajea alkitatzen da Burdinalen. Egin berria. 764003

- 55 m2ko lokala alkitatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.

- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

## SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

## Hildakoak

**Hilaria Garitano Berraondo**  
81 urte. Martxoak 5ean.

**Nikolas Elgarresta Larriategi**  
89 urte. Martxoak 6an.

## BERRIGARA

Eskatu eta etxean



76 03 97



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41  
BERGARA

## LETE TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.  
Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE  
BERGARA Tfnoa: 76 12 24  
IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

**Mugica**

**GOZOTEGIA**

Arte kale 3 Tfnoa: 76 51 65  
BERGARA



**L**egeek aitortzen dizkidaten eskubideak erabiliz, Udalarekin izan beharreko harremanak euskaraz izatea nahi dut.

*Bergara, 1991, otsaila.*  
*Sinadura*

Izena: .....  
Helbidea: .....

Andoni Ugalde



## Hau da gure aukera

Patxi Alberdi



Asier Madinabeitia



Andoni Larrañaga



Itziar O. de Zarate



Asier Agirrebeña



*Bergarako Udala*



*Euskara Batzordea*